

**KIMURI  
BERRERABILPEN  
TAILERRA**



**Abenduak 2**  
16:00-19:00  
**Abenduak 15**  
17:00-19:00  
**Abenduak 16**  
10:00-13:00

**Abenduak 6**  
10:30-12:30



**GOZOGINTZA  
TAILERRA**

Iker Markinez

**HARREMAN  
OSASUNTUAK  
LAGUN ARTEAN**

Nerea Mendizabal



**Abenduak 13**  
18:30

**Abenduak 17**  
11:00-14:00



**GABONETAKO  
AZOKA**

**OLENTZEROREN  
ETORRERA**



**Abenduak 23**  
19:00

**Abenduak 24**  
09:30



**DENOK  
KANTATZERA**

**IPUIN  
KONTALARIA**



**Abenduak 29**  
18:00



Arama zaitez aldizkaria  
17. alea | abendua

# Eguberri on eta ongi etorri 2024!



## Udal-talde berriaren aurkezpena

Agur t'erdi:

Udal-talde berriak aldizkako maiztasuna izango duen buletin bat helarazten hasi nahi dugu berriz ere, udala lanean ari den gaien inguruko informazioa zabaldu eta uanean interesekoa izan daitezkeen kontuak argitaratzeko asmoz. Gure lehen atal honetan, udal-talde berriaren aurkezpena egin nahiko genuke. Zinegotzi lanetan Jon Ander Gorospe, Udane Arizmendi, Asier Muñagorri eta Iker Irribarria arituko gara. Lierni Iztueta ere taldeko partaide izango da, herritar laguntzaile moduan. Azkenik, alkate lana Aritz Insaustiri dagokio. Ilusioz eta lanerako gogoz heltzen diogu laurteko honi eta zuen guztion laguntzarekin herriak behar dituen proiektuak aurrera eramatea espero dugu. Hurrengo hilabeteetan deituko ditugun herri batzarretan itzaroten zaituztegu!

Hola,

*El nuevo grupo municipal está compuesto por las siguientes personas: Jon Ander Gorospe, Udane Arizmendi, Asier Muñagorri, Iker Irribarria, Lierni Iztueta y Aritz Insausti. ¡Os esperamos en las próximas reuniones!*



## Gaztaintxota

Gaztaintxota kultur elkartetik gonbita luzatu nahi dizuegu herriko ekintzak antolatzeko egiten diren bileretan parte har dezazuen. Herriko kultur dinamika bizirik mantentzeko, antolaketa lan egingo duen taldea beharrezkoa dugu. Herritarren arteko harremanak sendotzeko eta zuen iradokizunak egiteko aukera ezin hobea da. Hurrengo bilera: abenduak 11, 20etan, udaletxean. Animatu!

*Os animamos a tomar parte en las reuniones para la organización de actividades del pueblo. Siguiete reunión: 11 de diciembre a las 20h en el ayuntamiento.*

## Harreman osasuntsuak lagun artean

Hurrengo asteetarako antolatutako ekintzen artean, abenduaren 13an 18:30etan Iriarte Aretoan, Nerea Mendizabalen hitzaldia izango dugu haur eta nerabeen gurasoentzat. Gaia, "Harreman osasuntsuak lagun artean" izango da. Izen ematea udaletxean edo mugikorrena mezua bidaliz (644 984 467) egin ahal izango da.

*El 13 de diciembre tendremos a Nerea Mendizabal, para ofrecer una charla con el tema "Harreman osasuntsuak lagun artean".*



## San Martin jaiak

San Martin jaiak igaro ondoren, eskerrak eman nahi dizkizuegu festetako ekintzetan parte hartu duzuen guztiei eta bereziki antolaketa lanetan laguntzen aritu zaretenei. Plazerra izan da plaza beterik ikustea. Gabonetarako ere ekintza ugari antolatu ditugu, bertan ikusiko gara!

*Quisiéramos agradecer a todos los que participasteis en las fiestas. ¡Sigamos así!*

**Doako hitzaldia:**

## Harreman osasuntsuak lagun artean

Izena emateko: **Udaleko Whatsapp 644 984 467**

#TREBAGUROSOK